

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2020.**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta bere sozietate publikoa den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari dagokiona.

Epaitegiak aldeko iritzia eman du bai bi erakundeen kontuei bai kontu bateratuei dagokienez ere, baina adierazi du ezin izan duela ondorioz atera ez deribatu finantzarioen ondorioz Sozietatean erregistratutako pasiboaren zuzentasunaz, ezta ibilgetu ukiezinaren berreskuragarritasunaz ere, eta, ondorioz, ezta Kontsortzioaren kontuetan Sozietateak duen partaidetzaren balorazioaren zuzentasunaz ere.

Bai Kontsortzioak bai Sozietateak zuzentasunez **bete dute** 2020ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**.